



Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Eskolako Irakurketa Plana eraikitzen: esperientzia erreal bat irakasleen prestakuntzan

Haizea Galarraga Arrizabalaga 

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
haizea.galarraga@ehu.es

To cite this article:

Galarraga, H. (2023). Eskolako Irakurketa Plana eraikitzen: esperientzia erreal bat irakasleen prestakuntzan. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 30, 42-60. DOI: 10.37261/30_alea/3

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/30_alea/3

Published online: 31 Mar. 2023

Eskolako Irakurketa Plana eraikitzen: esperientzia erreal bat irakasleen prestakuntzan

Building the School Reading Plan: a real experience in teacher training

Haizea Galarraga Arrizabalaga

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

haizea.galarraga@ehu.eus

Laburpena

Irakurketa gaitasuna funtsezkoa da bizitzako arlo pertsonal, sozial zein akademikoan. Hortaz, ulermena eta irakurzaletasuna ardatz bilakatzen dira eskola testuinguruan, eta aldi berean, irakasleen ohiko kezka iturri ere izaten dira, ebaluazio probek eta eguneroko lanak halaxe adierazita. Horri erantzuteko bide bat da praktikak eraldatzera bideratutako Eskolako Irakurketa Plan eraginkor eta sendo bat eraikitzea. Erronka horretan, irakasleen etengabeko prestakuntza nahitaezkoa da eta artikulu honek eskola batean martxan jarritako Irakurketa Planaren inguruko prestakuntza baten berri ematea du helburu. Ainguraketa teorikoa eta Gasteizko eskola batean bizitako prozesua azaltzen dira, eta baita horretatik guztitik eratorritako dekalogo bat ere, edozein eskola testuingurutan Irakurketa Plan bat diseinatzeko gako izan daitezkeen zenbait orientabide jasotzen dituen.

Hitz gakoak: Irakasleen prestakuntza, Irakurketa Plana, eskola, irakurketaren ulermena, irakurzaletasuna, dekalogo

Abstract

The reading competence is essential in all personal, social and academic fields. Therefore, the reading comprehension and reading habits are also key in the educational context, where teachers' concerns about the results of students' assessments and the reality of the classroom frequently arise. One way to respond to these concerns is to build a School Reading Plan to change daily practices. For this to happen, it is crucial that teachers receive an ongoing training, and this article presents a Reading Plan training program carried out in a school. A theoretical framework and an explanation of the process experienced in a school in Vitoria-Gasteiz are presented in this paper, as well as a decalogue including guidelines to guide other schools in their own Reading Plan designs.

Key words: Teacher training, Reading Plan, school, reading comprehension, reading habit, decalogue

*Garrantzitsuena ez da umeak lau urterekin irakurtzen
hastea, berrogeirekin irakurtzen jarraitzea baizik.*

(Toni García Arias, 2017. Itzulpena).

1. Sarrera eta testuingurua

Artikulu honek Irakurketa Planaren inguruko irakasleen prestakuntza esperientzia bat du oinarri. Zehazki, Gasteizko Niño Jesus Ikastetxean, 2021-2022 ikasturte osoan zehar, aurrera eramandako proiektu bat aurkeztu nahi du, beste hezkuntza esparrutan ere erabilgarriak izan daitezkeen alderdiak azaleratzeko helburuarekin.

Aipatutako ikastetxeak bazuen, ordurako, formazio ibilbide luzea Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren alorrean, aholkularitza jaso izan baitzuten proiektua bera idazteko, martxan jartzeko eta ebaluatzeko. Prozesu horretan murgilduta zeudela, konturatu ziren Irakurketa Plan sendo baten beharra ere bazutela eskolan, beste dokumentu instituzionalekin bat egin eta bide berean jarri beharko luketena. Ikasleen irakurketa ohiturekin eta ulermen gaitasunez kezkatuta, begirada pedagogikoa hor jarri nahi zutela erabaki zuten klaustroan. Horrek, nahitaez, agerian utzi zuen praktika didaktikoak berrikustearen eta taldeko ekimen kolektibo eta bateratu baten premia. Edonola ere, premisa argi bat zegoen, alegia, txosten idatzi bat egitea ez ezik, eskolako eguneroko praktikak eraldatzea zutela helburu. Paperean jasotzeaz harago, aplikazio eta eragina izango zuen zerbait bilatzen zen. Hortaz, prestakuntza eskaera egin zuten eta behar erreal hori izan da hemen ezagutaraziko den proiektuaren abiaburua.

Prestakuntza asmo hori Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU) batera sortutako proiektu baten bidez egikaritu da, hain zuzen ere, *Ikerketaren emaitzak eskualdatzeko bulegoaren* (IEEB edo OTRI gisa ezaguna) bitartekaritzarekin. Aipatutako zerbitzuak mundu akademikoa eta gizarteko sektoreak elkarlanean jartzeko aburua dauka eta berrikuntza zein gizarte ongizatea sustatzea lehenesten du. Hori horrela, Haizea Galarraga Arrizabalaga EHUko irakasle-ikertzailearen gidaritzapean, “Irakurketaren ulermena eta irakurzaletasuna ikaskuntza prozesuaren ardatz gisa: Eskolako Irakurketa Plana” izeneko transferentzia proiektua adostu, sinatu eta abian jarri da.

Eskolako Irakurketa Planak sortzeko erronkari erantzuteko, badira gure testuinguruan zenbait baliabide eta tresna, horien artean ezagunenetakoa dugu Eusko Jaurlaritzak (2018) argitaratutako *Euskadiko Irakurketa Plana* izeneko gida eta horren baitan garatutako *Irakurgunea* web orrialdea. Horrekin batera, Berritzeguneak ere argitaratu izan ditu hezkuntza etapa ezberdinetan *Irakurketa lantzeko orientabideak: Lehen Hezkuntza* (Eusko Jaurlaritza, 2013a) eta *Irakurketa lantzeko orientabideak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* (Eusko Jaurlaritza, 2013b) izenekoak. Bestetik,

badugu Galtzagorri Elkarateak Eusko Jaurlaritzarekin batera abiatutako *Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak* ekimena, irakasleei zuzendutako lantegiekin, 2018an abiatu zena. Nafarroako Gobernuaren eskutik, bestalde, material aberatsa kaleratu da, *Blitz. Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta horia* bildumapean, esaterako, *Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan* (Iza, 2007). Ukaezina da dokumentu horiek guztiak aurrekari eta gida garrantzitsu direla irakasleentzat, batik bat, eskolako txostena idazteko ataza horretan. Nolanahi ere, Irakurketa Plana bezalako erronka batek dagokion eskolako errealitatea izan beharko luke oinarri eta horren arabera eraikuntza planteatu, hezkuntza komunitate osoa inplikatuz eta eskolako praktiketan zuzenean eragingo duen proposamen egingarria eta iraultzailea ezarriz. Beraz, hori erdiesteko, gida eta orientabide orokorrez gain, ikastetxeko beharren neurria egokitutako prestakuntzak sustatzea ere ezinbestekoa izan da.

Sarrera honen ostean, hurrengo lerroetan, batetik, maila teorikoan azalduko da Irakurketa Plana zer den, zergatik den ezinbestekoa eta zein ekarpen egin dezakeen eskolako eguneroko praktiketan. Ondoren, Niño Jesus Ikastetxean aurrera eramandako prozesuaren berri emango da, prestakuntza eredu bat eskaintzeko asmoz. Amaitzeko, ainguraketa teorikotik zein bizitako esperientziatik eratorritako zenbait ikaskuntza plazaratuko dira dekalogo itxuran. Horrek guztiak balio dezake, arestian esan bezala, ikasitakoak beste testuinguru batzuetara eramateko, zenbait ildo iradokitze eta erronka berriak definitzeko.

2. Irakurketa Plana: zer, zergatik eta zertarako?

Eskolako Irakurketa Plana garrantzitsua dela esaten dugunean, irakurketaren beraren izaerara eta dituen funtzioetara jo behar dugu, halaberrez. Egungo eskolak, oraindik ere, idatzizko testuetan biltzen du ezagutzaren ehunekorik handiena eta, beraz, irakurketa gaitasuna ezinbesteko bihurtzen da ezagutzak eraikitze. Bestetik, XXI. mendeko kompetentzien arabera (*Skills for the 21st century*) (Wilson, 2018), irakurketa funtsezkoa da ikasleak autonomiaz jokatzeko nahiz bizitzako eguneroko egoera konplexuei kritikotasunez aurre egiteko.

Irakurketa, beraz, bizitzarako giltzarri da, eskola esparruan eta baita alor pertsonal zein sozialean ere. Hori dela eta, irakurketa oinarritzko gaitasun bilakatzen da hezkuntzan eta

gizartean, irakurle kompetentea eta motibatua izatea hertsiki loturik baitago arrakasta sozial eta akademikoarekin (Romero eta Trigo, 2015). Testu baten ulermena garrantzizkoa da ikasleen garapen prozesuan, idatzizko zeinuak deskodetzeaz gain, horiei esanahia eman, ulermena garatu eta ikaskuntzarako eskema mentalak sorrarazteko bide ematen duelako (Contreras-Morales, 2021). Beraz, irakurketaren ulermena ikasle ororen formazio prozesuan gako nagusietako bat da, garapenerako, ikaskuntzarako eta bizitzarako nahitaezkoa baita. Irakurketaren ikas-irakaskuntzak, gainera, berarekin dakar bestelako hizkuntza gaitasunak ere garatzea, ahozkoa eta idatzizkoa, kasu.

Hortaz, beharrezkoa litzateke administrazio zein erakundeek irakurketa hezkuntza mugetatik harago ulertzea eta, era berean, irakasleek zeregin horretan duten erantzukizuna eta rola azpimarratzea. Konpetentzia hain zabala izanik, ezingo litzateke hizkuntza arloetako irakasleen esku bakarrik geratu eta irakasle guztien ardurapekoa izan beharko lirateke hizkuntzaren eta, ondorioz, irakurketaren lanketa eta ebaluazioa (Montijano, 2016).

Irakurketaren garrantzia aitortuta, asko dira hezkuntza komunitateko partaideen artean azaleratzen diren kezka ikasleen gaitasunen eta erronken inguruan. Kanpo ebaluazioek, esaterako, ISEI-IVEIko Ebaluazio Diagnostikoak eta PISA 2018ko emaitzek datu kezkagarriak helarazi dituzte eta, horrekin batera, eskolako egunerokotasuneko lanean ere antzematen dira irakurketaren ulermenaren zein ohituren inguruko ardurak.

Horrek guztiak garamatza eskolan Irakurketa Plan eraginkor eta sendo bat eraikitze eta inplementatzeko beharrera, aurretik aipatutakoa egikaritzeko asmotan. Hezkuntzako lege-testuek diote indartu behar dela Irakurketa Plan bat abiaraztea, ulermena eta zaletasuna sustatzea, eskola-liburutegiak egotea, baina hezkuntza administrazioen esku geratzen da planen eraikuntza eta aplikazioa (Pascual, 2012). Beraz, orientabideak bai, baina zehaztasun falta handia dagoen testuinguruan, eskolak eta irakasleak noraezean senti daitezke. Eskolako beharrak oinarri eta abiapuntu, plan pertsonalizatua izan behar da Irakurketa Plana; elkarlanean eraikiko dena eta hezkuntza berrikuntza ipar duena, horrela bakarrik aldatuko baitira irakurketarekin zein idazketarekin loturiko ikusmoldeak eta praktikak, jakintza arlo zein oinarrizko konpetentzia guztietan.

Irakurketa ulertzeko modua eta berau Irakurketa Planean integratzeko era, eskola inklusiboaren markoan kokatu beharra dugu, hots, hezkuntza kalitatea, bikaintasuna eta ekitatea oinarri dituen hezkuntza ereduan (López-Vélez, 2018). Izan ere, irakurketa

eskubide eta inklusio sozialerako tresna bada, eskolak badu hori bermatzeko eginkizuna. Hau da, idatzizko testuetarako sarbidea, ulermena eta horietaz goatzeko aukera unibertsala izan behar da, alegia, ikasle denentzat irisgarria, guztien eskubidea baita hezkuntza inklusiboa (Echeita, 2021).

Gero eta askotarikoagoa den gizartean bizi garela ukaezina da, eta horrek isla dauka gizartearen geruza guztietan, baita eskolan ere. Hori dela eta, ezinbestekoa izango da hezkuntza praktika inklusiboak sustatzea, eskolako egiteko modu guztietan eraginez eta hezkuntza sisteman eraldaketa sorraraziz (López-Vélez et al., 2022). Hori guztia 2030eko Agendan, Garapen Iraunkorrerako Helburuetan, azpimarratuta dago, batik bat, 4. eta 10. Helburuetan, Kalitatezko hezkuntza eta Desberdintasunak murriztea izenekoak, hurrenez hurren.

Aipatutako helburuak lortzeko, honako alderdiak azpimarratu behar dira (Altonaga eta Varela, 2021): irakasleriaren etengabeko prestakuntza, ikas-irakaskuntza prozesuen ebaluazioa eta curriculum zein metodologiaren birpentsatzea. Horien baitan, praktika anitzak azpimarratu daitezke, Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala (IDU), *Irakurketa Erraza* egitasmoa, eta abar.

Goian aipatutako marko inklusiboa posible izan daiteke Irakurketa Planean esplizitatzen bada eta, ondorioz, martxan jartzen bada. Halako planek eskolako antolaketan eta eguneroko praktikan izan dezaketen eragina oso handia da eta badute ahalmena eraldaketa sorrarazteko. Beraz, oso garrantzitsua izango da hori guztia aintzat hartzea Irakurketa Planaren eraikuntza prozesuan, estrategia metodologiko inklusiboak integratzeko eta, horrekin, informazioaren eta ezagutzaren gizarte honetan herritar kritiko izango diren pertsonak hezteko (Mallén eta Sanchiz, 2012).

Irakurketa Planaren garrantzia, definizioa eta markoa ezarri ostean, horrek barne hartu beharko lituzkeen alderdiez jardungo dugu jarraian. Eusko Jaurlaritzako (2018) *Euskadiko Irakurketa Plana* hartzen badugu oinarri, ikus daiteke hiru ekintza-ardatz nagusi proposatzen direla: (1) irakurketa-idazketa hastapenak eta irakurketa gaitasuna (*irakurtzen ikasi*), (2) ulermena eta ezagutzaren garapena arlo guztietan barrena (*ikasteko irakurri*) eta (3) ohitura zein zaletasuna (*irakurzaletasuna*). Laburki, ulermena eta zaletasuna lirateke txanponaren bi alderdi nagusiak, jarraian xehetasunez aztertuko ditugunak.

Testu idatzien irakurketaz ari garenean, gaitasun konplexuaz ari gara, kodea deszifratzea baino gehiago suposatzen duena, Irakurgunea baliabidean azpimarratzen den moduan: “Irakurtzea testuarekin interakzioa izatea da, irakurleak jardun horretara bere ezagutza eta esperientziak ekarriz, testua ulertzeko, interpretatzeko, erabiltzeko eta haren inguruan gogoeta egiteko” (Eusko Jaurlaritza, d.g.). Horregatik, edozein hizkuntza edota jakintzagaiko ikaskuntzaren trebetasunik gorenena litzateke, buru prozesu oso konplexua eskatzen duena (Álvarez et al., 2020).

Ulermen sakonaz ari gara, *Pluriliteracies Teaching for Learning* teoriak azaleratzen duena (Meyer eta Coyle, 2017), edukia eta hizkuntza uztartzen dituen CLIL eredutik abiatu eta harago doana. Marko horren arabera, ikasleak jakintza-arloetan alfabetatzeko, halabeharrezkoa da ezagutza espezifikokoaren ulermena adieraztea arloak berezko dituen moldeetan eta gero eta modu konplexuagoetan. Hori dela eta, ulermena artikulatzeko, gero eta hizkuntza gaitasun handiagoa beharko da, irakurtzen ikasteaz gain, irakurritakoaz hitz egiten (interpretatzen, azalpena ematen, iritzia adierazten...) ikasteko, besteak beste.

Ulermena zentzu zabalean hartu badugu ere, ezin dugu ahaztu literaturaren didaktikaren esparruan, hezkuntza literarioaz (Ballester, 2015) hitz egin beharra dugula, alegia, gaitasun literarioa garatzea xede duen ikas-irakaskuntza ereduaz. Ikasleen literatur irakurketa eta erantzun konplexuak bilatzen ditu, betiere ikuspegi pertsonala, kritikoa eta gogoetatsua sustatuz (Bombini eta Lomas, 2020).

Ulermenarekin batera, ikasleen irakurketa ohiturak eta irakurzaletasuna ere izaten ohi da hezkuntza arloko profesionalen kezka, eta hori ere Irakurketa Planean jasotzea proposatzen da, goian ikusi dugun legez. Delgadok eta lankideek (2020) azaleratzen duten moduan, hezkuntza etapa ezberdinetan zehar irakurketa ohiturak ezartzeak onurak ditu maila askotan, baita gaitasun komunikatiboan eta arlo guztietako ikaskuntza prozesuetan ere. Hori horrela izanik, oinarritzkoa da horren lanketa Haur Hezkuntzatik hasia eta progresioa bermatzea hurrengo urteetan zehar, ikasleen interesak zein hezkuntza literarioarako funtsezkoak diren bestelako obrak konbinatuz (Rivera eta Romero, 2020). Horretarako, eskolaren erantzukizunaz gain, funtsezkoa izango da familien eta hezkuntza komunitateko gainerako agenteen lankidetzeta eta inplikazioa. Erronka horretan, irakasleen prestakuntzak berebiziko garrantzia hartzen du, bai ikasleen irakurketa ohiturak sustatzeko, bai eta familien inplikazioa bilatzeko ere; hori guztia eskolako Irakurketa Planean islatuz (Martínez eta Torres, 2019).

Dena den, ezin dugu aipatu gabe utzi badirela irakurzaletasuna sustatzea hezkuntza sistemaren zeregina dela zalantzan jartzen duten ahotsak ere. Izan ere, literatura irakastea da ardura nagusia eta ipar gisa galdu ezin dena. Horretarako, literaturaren funtzio sozialean sinetsi eta hura ikas-irakatsi beharra dago, komunikazio gaitasunera edota plazerera mugatutako eginkizunak soilik ez esleitzeko literaturari (Apalategi, 2011). Literaturaren berezko balioa lehen planora ekarri beharko litzakete hortaz, bere sakoneko ulermenik gabe ez baitago gozatzerik. Beraz, adi ibili behar da irakurzaletasunaren izenean, oinarrizko gaitasunak edo ikaskuntzak ez galtzeko.

Irakurzaletasunean murgilduta, amaitzeko, obren hautaketari ere erreparatu behar diogu, eskola-kanona nola osatzen den erabakigarria izango baita. Irakasleen aukeraketa irizpideetan trebatzeko eta kanon hori sortzeko, gure testuinguruan badira zenbat baliabide, besteak beste: berrikusketa bibliografikoak (esaterako, Permach eta Alvarez, 2019), adituen irizpide zerrendak, urtero argitaratzen den *Haur eta Gazte Literatura: Irakur Gida* (Mondragon Unibertsitatea), Galtzagorri Elkartearen ekarpenak, Nafarroako EIBZk (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa) antolatutako formazioak (adibidez: *Eskolako Literatur Kanona* izenekoa) eta abar luze bat.

Laburbilduz, irakurzaletasuna izango da Irakurketa Planaren zutabeetako bat, eta hura sustatzera bideratutako ekintzak planifikatu eta sistematizatuko dira hezkuntza komunitateko agente guztien artean, baina kontuan hartu beharko da horrek guztiak ezingo duela literaturaren ikas-irakaskuntza konprometitu edota gaitasuna bigarren plano batera alboratu.

3. Esperientzia bat irakasleen prestakuntzan: Gasteizko Niño Jesus Ikastetxea

Irakurketa praktiken eta Eskolako Irakurketa Plan baten ezaugarri adierazgarrienak identifikatu ostean, Gasteizko Niño Jesus ikastetxean aurrera eramandako prestakuntza esperientzia xehetasun gehiagorekin azalduko da jarraian.

Gorago adierazi den moduan, ikastetxeak berak identifikatutako formazio beharra izan da abiatzeko pizgarria. Ezinbestekoa da gisa honetako proiektuak burutzen direnean abiagunea protagonista bera izatea, kasu honetan, eskola. Alegia, beharra barrutik sortzeak dakar ekimena esanguratsua eta testuinguruko ezaugarrietara eta premietara

egokitua izatea. *Ad hoc* diseinatutako prestakuntza martxan jarri da 2021-2022 ikasturtean; nahiz eta gero ikusiko dugun legez, hurrengo urteetarako erronkak eta eginkizunak ere zehaztu diren.

3.1. Partaideak eta formazio saioak

Egitasmoan parte hartu duten protagonisten zerrenda oso zabala da, eskolako klaustro osoa (eta ahal izan den neurrian, hezkuntza komunitatea) inplikatzeko bilatu delako hasiera-hasieratik. Dena den, foro ezberdinak egon dira eta ardurak ere ezberdinak izan dira.

Aipatzekoa da proiektuaren lidergoa hartu duen talde eragile edo “traktore taldea” izeneko izendatu dela hasieratik, sei irakaslek osatuta (zuzendari pedagogikoa, orientatzailea eta etapa ezberdinetako beste lau irakasle, jakintza-arlo ezberdinetakoak). Talde horrek bilerak egin ditu hilero, formatzailea izan den Haizea Galarragarekin batera. Orotara, zortzi batzar egin dira eta tarte horiek aprobetxatu dira Irakurketa Planaren idazketarekin aurrera egiteko, gai espezifikotan formatzeko eta proiektua gidatzeko. Bilera horiek etengabeko online jarraipenarekin osatu dira eta ikasturte osoan zehar harreman sare indartsua eta jarraia bermatu da.

Talde eragilearekin burututako lan hori guztia, eskolako gainerako irakasleekin egindako formazio saio monografikoekin ere aberastu da, zeinetan klaustro osoa izan den partaide. Zehazki, lau izan dira eskainitako formazio saio espezifikokoak: lehena Haur Hezkuntzako (0-6 urte) hezitzaileekin (irakurketa-idazketa hastapenen inguruan); bigarrena ikastetxeko klaustro osoarekin (irakurketa ohituren eta irakurzaletasunaren bueltan); hirugarrena Lehen Hezkuntzako etapakoekin (irakurketaren ulermenaren inguruan); eta laugarrena eta azkena DBHkoekin (hau ere ulermenaren baitakoa). Zerrendatutako saio horiek guztiak nahitaezkoak izan dira Irakurketa Planaren eraikuntza eta idazketa prozesurako, horiek elikatu baitute proiektua.


3.2. Prozesuaren faseak

Irakurketa Plana faseka eta modu antolatuan gauzatu da. Lehenik eta behin, diagnosi fasea jarri da abian, non proposatu zaien klaustroko irakasle guztiei galdetegi bat betetzea, haien irakurketa ohiturak, maila pertsonal zein profesionalean, ezagutzeko helburuz (Jodeck-Osses et al., 2021 lanean balidatutako eta argitaratuko galdetegia erabili da horretarako). Erantzun horiek sakontasun gehiagorekin ulertzeko eta bestelako alderdi batzuetan sakontzeko, (irakasleen ohiko irakaskuntza praktikak, estrategia didaktikoak

eta metodologiak, ikasleen irakurketa gaitasuna eta zaletasuna...) eztabaida taldeak antolatu dira, etapaka eta horietako bakoitzean arlo ezberdinetako sei irakasle bildu dira. Eskolako errealitatea ezagutzeko ez ezik, irakasleen formazio beharrak ezagutzeko balio izan dute eztabaidok, eta informazio hori baliatu da prozesuko prestakuntza gaiak eta ildoak definitzeko. Hori guztia osatzeko, irakurketarekin lotutako praktika didaktikoen argazki orokor bat ere jaso da; eskolako irakasle guztien ahotsak jaso dira *Euskadiko Irakurketa Planean* (Eusko Jaurlaritza, 2018) aurkezten den analisis egiteko eredua jarraituz. Diagnostika osatu duten iturri horiek guztiak ezinbestekoak izan dira, horrek markatu baitu hasierako puntua, hau da, zein den eskolako momentuko egoera eta zein behar dauden.

Diagnostik eratorri dira, segidan, helburu nagusiak eta horiek erdiesteko diseinatu den ekintza plana, hau da, Irakurketa Planaren funts nagusia. Inplementazioa eta ebaluazioa, bestalde, hurrengo ikasturterako zereginak dira.

1. irudian erakusten da aurretik azaldutako prestakuntza prozesua jasotzen duen eskema:



Irudia 1: *Niño Jesus Ikastetxeko prestakuntza prozesuaren eskema.*

3.3. Egindako lana

Prestakuntza prozesuak eman du fruitua eta lortu da hasierako helburuei erantzutea: Eskolako Irakurketa Plana diseinatzea eta idaztea, eskola osoa inplikaturiko duen proiektu komun bat eraikitzea eta, bidean, irakasleak formatzea. Hori horrela, txostena bera idaztea mugarrietako bat izan bada ere, ez da horretan bakarrik geratu, paperean idatzitakotik harago joan eta ekintza planak eguneroko praktika didaktikoak alderatzera bideratutako ibilbidea aktibatu duelako.

Ikastetxeak nahiko argi izan ditu bere beharrak hasieratik eta egindako diagnosi lanak lagundu du horiek osatzen eta definitzen, ondoren helburu bilakatzeko eta hortik ekintza plan osoa eraikitzeko. Helburuak eskolako errealitatea aintzat hartuta eta klaustro osoaren nahiak eta iritzia jasota idatzi dira. Adibide gisa, 1. taulan erakusten dira zeintzuk diren ikastetxeak zerrendatu dituen helburu nagusiak, Irakurketa Planaren ekintza planeko jardura bilakatu direnak gero.

Taula 1: Gasteizko Niño Jesus Ikastetxearen Irakurketa Planean (2022) zehaztutako helburu nagusiak.

IRAKURKETA PLANA: HELBURU NAGUSIAK		
NIÑO JESUS IKASTETXEA		
1.- Irakurtzen ikasi (Irakurketa-idazketa hastapenak)	2.- Ikasteko irakurri (Ulermena arlo guztietan)	3.- Irakurzaletasuna (Irakurtzeko ohitura)
1.1.- Ikasleen kontzientzia fonologikoa handitzeko eta fonetika lantzeko jarduerak birpentsatzea.	2.1.- Errubrikak eta ebaluazio irizpideak adostea eta sortzea.	3.1.- Eskolako liburutegia berpiztea eta dinamizatzea.
1.2.- Irakurketaren jarioasuna lantzea: HHtik DBHra.	2.2.- Irakurketaren ulermena bermatzea: HHtik DBHra, ikasgai guztietan, prozesua adostea eta mailakatzea.	3.2.- Ikasgeletako eta liburutegiko irakurketa-materialak egokitzea, berritzea eta osatzea (hizkuntza guztietan eta online baliabideak ere kontuan hartuta).
1.3.- Lexikoa lantzea. Ikasleen hiztegia finkatzea eta aberastea.	2.3.- Lexikoa lantzea. Ikasleen hiztegia finkatzea eta aberastea.	3.3.- Ikasleentzat zein familientzat liburu corpus bat sortzea (balizko liburu zerrenda bat).
1.3.- Irakurketa-idazketaren ikas-irakaskuntzaren hastapenak: metodologia adostea, finkatzea, sistematizatzea eta ezartzea.	2.4.- Testuen aukeraketan trebatzea (iturriak edukitzea, testu mota desberdinak...) eta biltegi bat sortzea (genero eta testu genero desberdinak dituena).	3.4.- Familiak inplikatzeko ekimenak diseinatzea eta martxan jartzea (ekintza berriak sortuz eta daudenak sistematizatuz: liburu ibiltaria...).
1.4.- Programazioa sortzea eta idatziz jasotzea dokumentu batean (bi urteko gelatik hasita, LH 2. mailara arte): nola irakatsi, denboralizazioa (zer landu eta nola landu kurtsu bakoitzean), metodologia...	2.5.- Irakasleei prestakuntza eskaintzea irakurketa estrategien inguruan, ikasleei behar duten laguntza eskaini ahal izateko.	
	2.6.- Ulermen prozesuak ahalik eta irisgarritasun kognitibo handiena izan dezan bermatzea, hezkuntza inklusiboaren ikuspegitik.	

Ikus dezakegun moduan, helburuak Eusko Jaurlaritzako (2018) *Euskadiko Irakurketa Plana* gidak proposatzen dituen hiru ardatz nagusien arabera antolatu dira: irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri eta irakurzaletasuna. Ondoren, helburu horietako bakoitza lantzeko jardura espezifikoak diseinatu eta programatu dira ekintza plan zehatz baten

bitartez. Bertan zehaztu dira, helburu bakoitzerako, honakoak: ekintzak, iraupena, baliabideak eta lorpen adierazleak.

Behin ekintza plana, xehe-xehe, planifikatu eta idatzi ostean, 2021-2022ko ikasturtearen amaierarekin batera, bukatutzat eman dira Irakurketa Planaren txostenaren erredakzioa eta prestakuntza prozesua bera. Edonola ere, eskolak modu autonomoan jarraitzen du egitasmoa egikaritzen; izan ere, 2022-2023 ikasturtean ekin zaie bidearen azken bi urratsei: inplementazioa eta ebaluazioa. Hau da, ekintza planean adostutakoa aplikatzen hasi dira prestakuntzaren hurrengo ikasturtean. Horren bitartean zein ostean ebaluazioa egin beharko dute, betetze-maila eta balorazioa eginez eta hobekuntza proposamenak identifikatuz. Ebaluazioa egiteko, besteak beste, ikastetxeko irakasleek asmoa dute ikasgela barruko praktikak bidez jasotzeko eta horien gaineko hausnarketa egiteko, praktika gogoetatsuen bidez.

3.4. Testigantzak

Eskolan gauzatutako proiektuaren azalpenarekin amaitzeko, bi protagonisten ahotsak erakutsiko dira jarraian. Talde eragile edo traktorearen parte izan diren bi irakasle dira, lidergo nagusia hartu dutenak, eta honela gogoratzen dute prozesuaren pizgarria izan den abiapuntua:

Irakasleok, azken urte hauetan, alde batetik ikusten genuen hizkuntzen arloan ulermen eta adierazpen gabezia, eta beste aldetik, ikasleengan irakurzaletasunaren maila nabarmen jaitsi ere egin dela. Hau etapa guztietan somatzen genuen eta, gainera, testuak konplexuagoak izan ahala, orduan eta zailtasun handiagoak ikusten genituen arlo guztietan. (Talde traktoreko kidea, DBHko irakasle-tutorea)

Gainera Eusko Jaurlaritzak Ebaluazio Diagnostikoaren ondorioz, EAE mailan ere halako zerbait gertatzen ari zela ikusi zuen, eta ikastetxe guztiei proposatu zigun Irakurketa Plana sortzea edo eguneratzea. Beraz, bururatu zitzaigun Irakurketa Plan bat sortzea, egiten ari ginen ekintza guztiak sistematizatuz modu koordinatu batean. Eta, horretarako, prestakuntza behar genuen. Horrela hasi zen guztia. (Talde traktoreko kidea, LHko irakasle-tutorea)

Ondoriozta daitekeen moduan, ikasleen irakurketa gaitasunaren eta zaletasunaren inguruko kezkak mugitu ditu aldaketak egitera eta hau guztia martxan jartzera. Edonola ere, azkenean, konturatu dira hau ez dela ikasleei bakarrik dagokien zerbait, baizik eta eskola osoa integratu eta koordinatu behar duen proiektu bat, pertsona eta esparru guztiak zipriztinduko dituen, ikastetxearen antolamendutik hasi, irakasleen egiteko modu pedagogiko eta didaktikoetatik igaro, eta ikasle zein familiengana iritsi arte.

Behin prestakuntza prozesua amaituta, Irakurketa Planaren txostena idatzita geratu da eta ekintza planaren aplikazioan murgilduta dago eskola, jarraikortasuna izango duen bidea izanik. Orain arte urratutakoaren balorazioa egin da, azpimarratuz irakaslearen praktikak berrikustera eraman dituztela, fokua haien praktikan jarriz eta horren gaineko hausnarketa sustatuz:

Nik, DBHko irakasle bezala, esan behar dut lan honek behartu gaituela birpentsatzera irakurketaren inguruan egiten ari ginena. Horrela, gure indarguneak eta ahuleziak jakitearen garrantziaz ohartu naiz, batez ere gabeziak. Askotan denbora edota giro faltagatik (batzuetan talde itxietan, edo etapa berdinetan lan egiten dugulako...) hausnarketari ez diogu eman behar den garrantzia. (Talde traktoreko kidea, DBHko irakasle-tutorea)

Gogoeta prozesu hori, gainera, komunitatean egitea eta irakasle guztiak mahaiaren bueltan jartzea modu positiboan baloratu da, helburu komunak ezartzea eta guztien inplikazioa lortzea funtsezkoa izan baita:

Interesgarria iruditu zait beste etapakoekin zein arlokoekin hausnarketa hori egitea, eta ikuspuntu desberdinak entzutea, elkarrekin norabide bakarra marraztuz. Izan ere, arlo guztietako irakasleok dugu lan honetan ardura, ez bakarrik hizkuntzakook. (Talde traktoreko kidea, DBHko irakasle-tutorea)

Amaitzeko, eskolan Irakurketa Planak izan beharko lukeen lekuari buruz ere jardun da, aitortuz, leku eta denbora pribilegiatua eskaini beharko litzaiokeela. Izan ere, ulertzen da irakurketa dela bizitza akademikoaren eta sozialaren erdigune nagusietako bat, ezinbestekoa oinarrizko hezkuntza gaitasun guztiak eskuratzeko. Hori bermatzea, gainera, nahitaezkoa izango da kalitatezko hezkuntza inklusibora hurbiltzeko, non ikasle guztien irisgarritasuna bilatuko den eta bakoitzaren beharrei erantzun zaien.

Irakurketa prozesua eskolako zereginetan zutabe nagusienetako bat izan beharko litzatekeela uste dut. Horretarako, irakurketa prozesua modu zehatz eta koordinatu batean bideratu behar dugula eta prozesu honi kalitatezko denbora gehiago eskaini behar diogula ohartu naiz. Eta, bestalde, irakurketaren irisgarritasunaren garrantziaz jabetu naiz, gure ikasle guztientzat irakurketa prozesuan era eraginkor batean murgiltzeko ezinbestekoa delako. Ikasle guztien irakurketa prozesua gidatzea eta aberastea gure zeregina denez, paperetatik gelara, hau da, Irakurketa Planetik ekintzara lehenbailehen pasatu behar dugula uste dut. (Talde traktoreko kidea, LHko irakasle-tutorea)

4. Esperientziatik eratorritako zenbait ikaskuntza: Eskolako Irakurketa Plana eraikitzeko gakoak

Azken atal honetan, ondorio gisa, bildu nahi izan dira bizitako prozesuak ekarri dituen zenbait ikaskuntza, baliagarriak izan daitezkeelakoan beste edozein eskolatarako ere. Horretarako, ainguraketa teorikotik zein aurkeztutako prestakuntza prozesuaren esperientzia errealetik azaleratu diren hamar gako aurkeztuko dira, dekalogo itxuran.

Eskolako Irakurketa Plana eraikitzeko dekalogo

1) Eskolako eguneroko praktika errealak eraldatzeko proiektua izan beharko litzateke, alegia, paperean idatzita dagoen txosten bat baino zerbait gehiago. Beste zenbait dokumentu instituzionalekin batera galdua eta abandonatuta dagoen zerbait izatea ekiditea funtsezkoa da, egindako ahalegina alferrikakoa izan ez dadin. Horretarako, ikastetxeko kide guztiek proiektua ezagutzea gakoa da, eta, harago, denek parte-hartzea haren eraikuntzan, inplementazioan eta ebaluazio prozesuan. Zentroko praktika makroak zein mikroak (eskolako dokumentu orokorretatik ikasgela barruko elkarrekintza txikietaraino) iraultzea bada xedea, etengabeko berrikusketan egon behar den tresna bizia izan behar da Irakurketa Plana.

2) Hezkuntza-komunitate osoa barne hartzen duen erraminta izatea komenigarria da, eskolako zein eskolaz kanpoko agente guztien artean eraikitakoa izan dadin. Hori horrela, irakasleez gain, protagonista anitz daude tartean: eskolan lan egiten duten bestelako hezkuntza-profesionalak, ikasleak, familiak, inguruko liburutegiak eta elkarteak, herri mailako proiektu sozio-hezitzaileak, kultur eragileak... Modu horretara, Irakurketa Plana ikuspegi komunitariotik sortu behar da, modu holistikoan eta adostuan, ikastetxeko kulturaren parte bilaka dadin. Hori egikaritzeko, partaide guztien kezka eta beharrak abiapuntu izan behar dira, hortik azaleratuko baitira ekintza planerako ideiak eta proposamenak.

3) Hezkuntza inklusiboaren ikuspegiarekin bat, nahitaezkoa izango da irakurketa ikasle guztiei irisgarri egitea. Ekitatearen printzipioa oinarri izanda, Irakurketa Planak bermatu behar du irakurketa-idazketa prozesuek ikasle guztiak aintzat hartzea. Irakurketa eta berarekin lotutako bestelako kompetentziak (ahozkoa, idatzizkoa...) beharrezkoak dira ezagutzara sarbidea izateko, mundua ezagutzeko eta, ondorioz, pertsonak gizartean integratzeko eta aktiboki parte hartzeko. Beraz, plana eraikitzerakoan, ikastetxeko ikasleriaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartzea eta horietara egokitutako helburuak eta jarduerak planifikatzea bilatuko da.

4) Etorkizuneko euskal irakurle kompetenteak heztea beharko luke izan euskal hezkuntza sistemaren ardatz nagusietako bat. Ezin dugu ahaztu zein testuinguru soziolinguistikotan gauden eta euskara hizkuntza gutxitua izateak dakartzan ondorioak eta erronkak. Euskal eleaniztunak sortzea bada Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera profileko ezaugarri nagusietako bat, irakurketa kompetentzia sustatu beharko dugu halaber, hori guztia gure kulturaren esparruan egin behar dugula gogoratu. Bide horretan, besteak beste, egiten diren kanon hautuei erreparatu behar zaie, xehe eta modu kontzientean.

5) Irakurketa, bestelako hizkuntza alderdiak bezalaxe, ez da soilik hizkuntza eta literaturako irakasleriaren ardura izan behar. Irakurketa-idazketa prozesuak, modu integratuan, jakintza arlo guztietako parte izan beharko lirake; batetik, bizitza akademiko zein sozialerako funtsezkoak direlako, eta, bestetik, arlo bakoitzak bere hizkuntza propioa garatzen ere lagundu behar duelako. Beraz, hizkuntzaren eta, kasu honetan, irakurketaren, izaera zeharkakoa ulertu eta jakintzagai guztietako irakasleak inplikatzeko lehentasun bilakatzen da. Erronka horretan, arloen arteko koordinazioa beharrezkoa izango da, beste askoren artean: testuen hautua egiteko, metodologia zein egiteko modu berritzaileak bilatzeko eta ebaluazio irizpideak eta tresnak adosteko. Finean, irakurketa praktikak esparru guztietan sistematizatzeko.

6) Koordinazioa eta progresioa bermatu behar da maila, ziklo eta etapa guztien artean, helburuen eta ekintzen jarraikortasuna eta koherentzia bermatzeko. Irakurketa Planak ongi zaindu behar du mailaz maila ezartzen duen ibilbidearen bilakaera. Horregatik, jakintza arloen arteko sarea babestea oinarrizkoa dela esan dugun modu berean, progresio bertikala ere ziurtatu behar da. Irakurketa eta idazketaren hastapenetan,

esaterako, nabaria da beharrian hori, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako jauzian harrapatzen baitu bete-betean. Antzera gertatzen da Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako trantsizio horretan ere, non ohikoa izaten den eredu metodologikoak aldatzea, irakurketa ohituretan aldaketak egotea, eta abar.

7) Idatzizko testuen ulermena lantzea lehentasun bilakatzea premiazkoa da, betiere ulermen sakona eta inferentziala bermatuz eta pentsamendu kritikoa garatuz.

Irakurketa bizitzarako (arrakasta akademikoa, harreman sozialak, pertsonaren garapen integrala...) nahitaezkoa bada, irakurketaren ulermenari arreta jarri behar dio Irakurketa Planak. Gainera, ikasleen ulermen gaitasunek kezka sortzen dute irakasleen artean eta ebaluazioek ere hala adierazten dute. Beraz, testu genero guztien ulermen inferentziala eta kritikoa lantzeko konpromiso sendoa hartzea garrantzitsua izango da, eta horri, nahitaez, ikasgai eta esparru guztietatik heldu behar zaio.

8) Irakurzaletasuna sustatzea da Irakurketa Planaren zutabe nagusietako bat,

irakurketaz gozatzea eta ohitura sendoak eraikitzea bilatuz. Nahiz eta azken xedea irakurketa konpetentzia garatzea izan, bidean, ohiturei eta zaletasunei ere begiratu beharko diegu, hertsiki lotuta baitoaz alderdi biok. Irakurketarekiko gogoak, beraz, gaitasunarekin batera etorri beharko luke, albo-ondorio gisa bada ere. Dena den, aintzat hartu behar dugu zaletasuna ez dela helburu bakar ez azken, eta, hortaz, bere izenean ez genukeela oinarrizko irakurketa gaitasunaren lanketa alboratu edo ahaztu behar. Amaitzeko, irakurzaletasuna transbertsal eta oinarrizko gisa ulertu behar dugu, eta ez aldizkako momentu edo egun puntualetan jorratzeko zerbait bezala.

9) Irakurketa eta idazketa hastapenen ikas-irakaskuntzari arreta jartzea eta

oinarri didaktiko-metodologikoak ezartzea axola handikoa da. Irakurketari buruz hitz egiten dugunean, hastapeneko momentuak aintzat hartzea eta bereziki zaintzea garrantzitsua izango da, etorkizunerako oinarri eta abiaburu izango baitira. Irakurketa Plan baten zutabeetako bat dugu, hain zuzen ere, *irakurtzen ikasi* izenekoa, prozesuaren hasierako uneak eta irakurketa gaitasuna bera barne hartzen dituen. Hori dela eta, irakurtzen eta idazten nola irakasten den pentsatzea, adostea eta planifikatzea garrantzitsua izango da, arestian aipatutako etapen arteko trantsizioari ere erreparatuz.

10) Ikasgelako zein eskolako liburutegiak zaintzea, birpentsatzea eta dinamizatzea gakoetako bat izan behar da. Irakurketa gaitasun eta ohituretan aldagai askok eragiten

dute eta horietako bat da liburutegia, bai etxekoa, bai eta eskoletakoak ere. Ikasgela barrukoa zein ikastetxekoa izan, hori modu eraginkorrean antolatzea eta kudeatzea ardua handiko gaia da. Bertan dagoen materiala etengabe berrikusteaz eta berritzeaz gain, liburutegien funtzionamendua dinamizatzea ere planifikatu behar da Irakurketa Planean, alegia, nolako jarduerak edota proiektuak eraikiko diren bertatik, nola kudeatuko den mailegu prozesua eta nolako erabilera emango zaion arlo ezberdinetan.

Esker ona eta oniritzia

Artikulu honetan aipatzen den Gasteizko Niño Jesus Ikastetxeak oniritzia eman du bertan gauzatu den prestakuntza prozesuaren zabalkundea egiteko, eskolaren izena aipatuz eta irakasleen anonimotasuna zainduz. Bide batez, aitortu behar da lan hau egikaritzea posible izan dela eskolako partaide guztien inplikazioagatik; hortaz, eskerrik beroenak proiektuaren protagonista izan diren eskolako profesionalei.

Bibliografía

- Altonaga, B. eta Varela, M. (2021). ¿Inclusión? Diferencia, diversidad y lo “humano” como límite. In G. Román, E. Pérez-Izaguirre, I. Biota eta M. Picaza (koord.), *Inclusión socioeducativa. Propuestas y metodologías innovadoras en contextos educativos* (25-36. orr.). GRAÓ.
- Álvarez-Cañizo, M., Cueva, E., Cuetos, F. eta Suárez-Coalla, P. (2020). Reading fluency and reading comprehension in Spanish secondary students. *Psicothema*, 32(1), 75-83. <https://doi.org/10.7334/psicothema2019.196>.
- Apalategi, U. (2011). Irakurzaletasuna hezkuntza sistemaren helburu? *Egan*, 64(3-4), 99-119.
- Ballester, J. (2015). *La formación lectora y literaria*. GRAÓ.
- Bombini, G., y Lomas, C. (2020). Utopías y distopías en la enseñanza literaria. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, 90, 7-14.
- Contreras-Morales, S.F. (2021). La comprensión lectora para el éxito escolar. *Dominio de las Ciencias*, 7(3), 61-81. <http://dx.doi.org/10.23857/dc.v7i3.1982>
- Delgado, M.D; Méndez, I. eta Ruiz, C. (2020). Motivación hacia la lectura en el alumnado de Educación Infantil y Primaria. *European Journal of Education and Psychology*, 13(2), 177-186. <https://doi.org/10.30552/ejep.v13i2.359>
- Echeita, G. (2021). Prólogo. In A. Márquez (koord.); S.M. Corso, C. Elizondo, J. Blas, M. Rubio, M.I. Villaescusa eta L. Alcántara (2021). *Inclusión: acciones en primera persona. Indicadores y modelos para centros inclusivos. Manual práctico* (7-12. orr.). GRAÓ.
- Eusko Jaurlaritza (d.g.). *Irakurgunea*. <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/inicio>
- Eusko Jaurlaritza (2013a). *Irakurketa lantzeko orientabideak. Lehen Hezkuntza*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2013b). *Irakurketa lantzeko orientabideak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2018). *Euskadiko Irakurketa Plana*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- García, T. (2017). *Hacia una nueva educación*. MAD Editorial.
- Iza, L. (2007). *Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan*. Blitz, Eskolako Liburutegiko Bilduma. Nafarroako Gobernua.

- López-Vélez, A.L. (2018). *La escuela inclusiva: El derecho a la equidad y la excelencia educativa. En busca de la equidad y la excelencia*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- López-Vélez, A.L., Amor, A. eta Fernández-Blázquez, M.L. (2022). *Educación 2030. Viaje hacia la inclusión*. Plena Inclusión.
- Mallén, M.D. eta Sanchiz, M.L. (2012). Herramientas para una escuela inclusiva: El Plan Lector. *Quaderns Digitals, 71 (Estrategias Didácticas Inclusivas)*, 1-14.
- Martínez, M.M. eta Torres, A. (2019). Hábito lector en estudiantes de primaria: influencia familiar y del plan lector del centro escolar. *Revista Fuentes, 21(1)*, 103-114. <https://doi.org/10.12795/revistafuentes.2018.v21.i1.07>
- Meyer, O., y Coyle, D. (2017). Pluriliteracies Teaching for Learning: conceptualizing progression for deeper learning in literacies development. *European Journal of Applied Linguistics, 5(2)*, 199-222. <https://doi.org/10.1515/eujal-2017-0006>
- Montijano, B. (2016). La lectura a examen: una mirada desde el plan lector de centro. *Aula De Encuentro, 18(2)*, 144-157.
- Pascual, J. (2012). Plan lector de Centro y biblioteca escolar: dos herramientas para la innovación educativa. *Textos de didáctica de la lengua y la literatura, 60*, 13-22.
- Rivera, P. eta Romero, M.F. (2020). El adolescente como lector accidental de textos literarios: hábitos de lectura literaria en Educación Secundaria. *Ocnos. Revista De Estudios Sobre Lectura, 19(3)*. https://doi.org/10.18239/ocnos_2020.19.3.2313
- Romero, M. F. eta Trigo, E. (2015). Herramientas para el éxito. *Cuadernos de Pedagogía, 458*, 16-21.
- Wilson, J. M. (2018). *The Human Side of Changing Education: How to Lead Change With Clarity, Conviction, and Courage*. Corwin.